

## 6 igandea

08:00etan: Mendi irteera: Zumarraga-Usurbe-Beasain, Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.

## Beasainmendiko jaiak

11:00etan: Herri meza.  
11:30etan: Herri krosa.  
11:45etan: Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongietorria.  
12:30etan: Herri Kirolak.  
13:30etan: Tiburtzio Mujikari omenaldia.  
14:00etan: Bazkari herrikoa.  
16:30etan: Haur jolasak, bertsolariak, erromeria.

## 8 asteartea

18:00etan: Meza eta Erromeria, txistulariek lagunduta. Loinazko Ama Birjiniaren ermitan.

## 9 asteazkena

19:00etan: Aiko erromerirako plaza-dantzen entseua. Dolarea parkean.

## 11 ostirala

## Igartza-Loinaz auzoko jaiak

19:00etan: Txupinazoa. Ondoren buruhandi eta txistulariak, azkenik goxokiak.  
20:00etan: Ardo eta txistorra dastaketa.  
20:30etan: Monologoa ardo dastaketan.  
22:30etan: Kontzertuak: Makulu-ken + beste bi talde.  
23:30etan: III. Txapel jaurtiketa.

## 12 larunbata

## Igartza-Loinaz auzoko jaiak eta Igartzako Kofradia

11:30etan: Marrazki tailerra eta altxorren bila; ondoren hamaiketakoa.  
12:00etan: Igartzako dantzarien irteera, Aurtzaka Dantza Taldearekin.  
12:30etan: Igartzako eta Vendrelleko dantzak, Aurtzaka Dantza Taldearekin Igartza multzoan.  
13:30etan: Sagardo eta odolki dastaketa, Dolarean.  
15:00etan: Futbito txapelketa.  
16:00etan: Mus txapelketa.  
17:00etan: Erretiratuentzako toka eta igela.  
17:00etan: Patata tortila lehiaketa.  
17:00etan: Haur jolasak.  
17:30etan: Erromeria AIKO taldearekin.  
19:00etan: Guztiontzako merienda.  
21:00etan: Afaria.  
22:30etan: DJ.  
23:00etan: Ikuskizuna.

## 13 igandea

## Igartza-Loinaz auzoko jaiak

12:00etan: Herri Kirolak (partehartzaileak).  
17:00etan: Haurrentzako pintxo hotz tailerra.  
18:00etan: Malabare/pailazo ikuskizuna.  
19:00etan: Buruhandiak, gero gozokiak.

## 20 igandea

08:00etan: Mendi irteera: Besaide, Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.

## 24 osteguna

## Lazkaibar auzoko jaiak

18:00etan: Lazkaibarko auzokideak Arangoitira bisitan.  
20:00etan: Baxoerdi-edate herrikoa.

## 25 ostirala

## Arana-Bideluzeko jaiak

18:00etan: Buruhandien irteera txistulariekin.  
19:00etan: Txokolate-jana umeentzat.  
20:00etan: Disko-festa.  
24:00etan: Disko-festa.

## 26 larunbata

08:00etan: Mendi irteera: Kanpaldia Pirineotan, Aizkorri Mendizale Elkarrekin antolatuta.  
Arana-Bideluzeko jaiak  
12:30etan: Baxoerdi-edate herrikoa.  
20:00etan: Euskaraokoa.  
24:00etan: LOS DELGAS.

## 27 igandea

## Lazkaibar auzoko jaiak

10:00etan: Suziri jaurtiketa.  
12:00etan: Meza hildako auzotarren alde, Andra Mari Zeruratuaeren parrokian.  
14:30etan: Senidetan-bazkaria. Bazkalondoan, aurrekua Beasaingo Txistulari eta Dantzariarekin.

## Arana-Bideluzeko jaiak

12:00etan: Toka erretiratuentzat.  
12:00etan: Baxoerdi-edate herrikoa.  
12:00etan: Herri kirolak umeentzat.  
18:30etan: Tatxin eta Tatxan pailazoak.  
19:00etan: Luntxa auzoan jaiotako erretiratuentzat, Aizkorri Mendizale elkarrekin.

**ERAKUSKETAK** Irailaren 18tik 27ra.  
Erakusketa: Argazki erakusketa (Argizpi).  
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretan.

## 2009-2010erako Matrikulazioak



### BEASAINGO BERTSO ESKOLA

Matrikula epea: 7-X / 25-X.  
Prezioa: 30 euro/ikasturte osoa.  
Informazio gehiago: 943 02 80 63.



### MUSIKA ESKOLA

Matrikula epea: 31-VIII / 4-X.  
Informazio gehiago: 943 02 81 05.  
Ordutegia: 09:00-13:30.



### UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula epea: 1-X / 15-X.  
Informazio gehiago: 943 02 81 00.  
euskaltegia@beasain.net



### ESPERIENTZIA ESKOLA

Ikastaroak urritik ekainera izango dira, astean hiru egunez.  
Matrikula epea: 31-X arte.  
Prezioa: 150 euro/ikastaro osoa.  
Informazio gehiago: Goieki 943 16 15 37 eta Uggasa 943 72 58 29.



### LUDOTEKA

Matrikula epea: 14-X / 2-X.  
Prezioa: 60 euro/urte osoa.  
Informazio gehiago: Irailaren 14tik 18ra Ludoteka zabalik egongo da gune hori, egitaraua, baliabideak eta hezitzaileak ezagutzeko. Telefonoa: 943 88 65 46 (deitu 16:30etik 19:00etara).



## Jubilatuak Aspertzeko betarik gabe

**4 JAIK** Beasainmendi, Igartza, Lazkaibar eta Arana-Bideluzeko jaiak izango dira irailean.

**6 LAN MUNDUA** Hainbat beasaingarrek atzerria hautatu dute lanerako.

**10 OBRAK** Hil honetan hasiko dira Zubimuzu plaza eta Bideluze arteko obrak.

Beasain iruditan...




1953



Usurbe mendiko gurutzea 1953an eraiki eta inauguratu zen, baina hori gertatu baino zertxobait lehenago Beasaingo mendizale elkarteak bertara gerturatu eta argazki hori atera zuten.

1907



1905ean hasi zen Beasaingo CAF tren bagoiak egiten eta bi urtetan mila bagoi egitea lortu zuten. Argazkia 1000. bagoia egin zuteneko ospatzeko da. Bertan CAFeko nagusiak eta langile taldea agertzen dira.

Argazkien egileak ezezagunak dira.

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Iritsi orduko alde egin digu udaldiak, baita berarekin eraman ere ziur aski askoren opor egunak. Ea orain guztiok lanari heltzeko aukera dugun!

Halere, aisiak ere izango al du tartarik gurean! Ohi den moduan sona handiko festak prestatu dituzte Beasainmendiko auzotarrek auzolanean, zer esanik ez Igartza, Bideluze eta Lazkaibarren. Ale honetan duzu jai giro horietara gerturatzeko aukera.

Ezin ahaztu Josetxo Imaz lasterketa herrikoia. Korrikalariak iraileko azken igandean harrotuko dituzte herriko hautsak. Guk halere, lasterketaz gain Josetxo berak egindakoari eman nahi

izan diogu garrantzia. Orri honetan duzu bera gertutik ezagutu zuten gutxi batzuren iritzia.

Jubilatuak elkarteok irailean egiten dituzte urteko ospakizunak eta beraien berri ugari duzu orri hauetan. Bere baitan hainbat kide biltzen duen elkartearen nondik norakoak, urtean zeharreko kantu, joko, dantza, hitzaldi, eskulan, ibilaldi... hamaika ekintza burutzen dituzte! Guztiak zoriondu nahi nituzke eta gure esker ona adierazi, batipat talde zuzendaritzari.

Gainerakoan, globalizazio eta antzeko hitzak hitzetik hortzera dabilazkigun honetan, munduan zehar lanean dabilen hainbat herritar dakartzagu gurera. Lehenago ere makina bat beasaindar ibilia da lanean munduan zehar eta gaur ere ezinbestekoa da gurea bezalako herrian gazteak mundu zabalean lanean jardutea, bertako zein kanpoko enpresetan. Gazte beasaindar batzuen testigantza jasotzen da aldizkarian.

El verano se ha ido nada más llegar, y seguramente se ha llevado las vacaciones de muchos. ¡A ver si ahora todos podemos retomar el trabajo!

De todos modos, el ocio también tiene su lugar. Como es habitual, los vecinos de Beasainmendi han preparado sus fiestas en auzolan, y qué decir de los de Igartza, Bideluze y Lazkaibar. En este número tendrás la oportunidad de acercarte al ambiente festivo de esos barrios.

No nos podemos olvidar de la carrera popular en memoria de Josetxo Imaz, el último fin de semana de septiembre. Nosotros, además de la carrera, hemos querido subrayar lo que hizo el propio Josetxo. En esta página encontrarás las palabras de varias personas que lo conocieron muy de cerca.

La Asociación de Jubilados organiza en septiembre sus celebraciones anuales y encontrarás noticia de ellas en estas páginas, sobre la asociación, sus socios y los cantos, juegos, bailes, conferencias, manualidades, excursiones... que realizan durante todo el año. ¡Organizan muchas actividades! Quisiera felicitarlos a todos y mostrarles nuestro agradecimiento, en especial a su Junta Directiva.

Además, en este momento en el que utilizamos tanto la palabra globalización, hemos reunido a beasaindarras que trabajan en diferentes partes del mundo. En otras épocas también ha habido muchas personas de Beasain trabajando en otros países y hoy también es imprescindible que los jóvenes de un pueblo como el nuestro trabajen en distintos lugares del planeta, en empresas tanto locales como extranjeras. En este número, hemos recogido el testimonio de algunos de esos jóvenes beasaindarras.

Josetxo Imaz beasaindarren oroimenean



Amaia Insausti

"Josetxotaz gogoratzen dut berri-tsua zela oso. Harritzeko da nola bizi zuen atletismoa, bai berak eta bai bere emazteak, Gloriak. Oso zaila da hainbeste urtetan hark zeukan ilusioari eustea. Eta inguruak animatzea. Ni 17 urtez ibili naiz eta azkenean txispa galdu dut eta Josetxo beti zegoen txapelketarako prest. Berari zor diogu atletismoa bultzatu izana. Orain, erreleboa hartu dute Jose Javier Cuadrado, "Karratu"k eta Ordiziako beste batzuk baina bera izan zen dena hasi zuena. Jende askok ezagutzen zuen eta hori antzematen da bere omezez antolatzen den lasterketan. Urte sasoi aproposa da zeren jendea Beahobia prestatzen ariren da".



José Javier Cuadrado

Josetxo y José Manuel Caballero "Txato" fueron los que fundaron el club de Atletismo de Ordizia donde yo empecé a entrenar hace 28 años. En el caso de Josetxo, recuerdo que hacía de todo: de entrenador, de secretario, de presidente... Josetxo era un apoyo para todos nosotros. Era un gran luchador y trabajaba por el club y por los atletas. Era un hombre muy vital, muy buen atleta y consiguió el Record del mundo de Atletas veteranos de 400 m vallas. El memorial que lleva su nombre es una forma de dedicar un día a su memoria mediante una carrera popular.



Amaia Andrés

"Conocí a Josetxo en 1981. En el colegio vieron que se me daba bien el atletismo y me mandaron al Club de Ordizia. Empecé entonces a entrenar con Josetxo y con José Manuel Caballero "Txato". Aunque algunos años después me fui fuera y estuve en otros clubes, yo sé que pude ir a los Juegos Olímpicos con el Club Txindoki gracias a gestiones que hizo Josetxo. En lo personal, era como un segundo padre además de entrenador. Se preocupaba por nuestras cosas, los estudios... Siempre estuve en contacto con él y tuvimos una muy buena relación".



Andres Etxezarreta

"Ni Beasainera etorri aurretik Zaragozan egon nintzen eta han krosa egiten genuen. Hemen ere giroa bazegoela ikusi nuen eta Josetxo ezagutzeko zortea izan nuen. Ikasleak entrenatzeko egitarau bat eman zidan eta beti galdetzen zidan nola gindoazen. Irekia zen oso, beti laguntzeko prest. Atletismoa sutuki bizi, sentitu eta maite zuen. Hemen atletismoa berari esker sartu zen, berari eta Jose Manuel Caballerori esker, esango nuke. Sekulako bikotea osatzen zuten. Jendeak ez dauka Josetxo ahazteko. Hainbeste saiatu zen! Eta musutruk!"

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:  
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:  
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 5 0



@ udala@beasain.net

OHARRA

www.beasain.net

Agortako festa

# Beasainmendiko jaiak



## Arana-Bideluzeko festak

**Imanol Martínez eta Mariano Sánchez**  
Arana-Bideluze auzoko festa batzordeko kideak

**“Festek auzoari bizitza ematen diote”**

Iraileko azken astebukaeran ospatuko dira Arana-Bideluzeko jaiak

Las fiestas de Arana-Bideluze se celebrarán del 25 al 27 de septiembre. Imanol Martínez y Mariano Sánchez son dos de los integrantes de la comisión de estas fiestas.

¿Qué actividades se van a realizar en las fiestas?

Mariano: El viernes, comenzaremos con chocolatada, cabezudos y Disko Festa. El sábado, habrá Karaoke, teatro de calle y actuación del grupo Los del Gas. El último día, el domingo, habrá un lunch y campeonato de rana y toca para los jubilados del barrio y deporte rural infantil y payasos para los más jóvenes.



Mariano Sánchez

Las fiestas de Arana-Bideluze se celebraban desde 1947 pero en los 80 se dejaron de organizar. La comisión recuperó otra vez esa costumbre en el año 2001.

Imanol: Antes eran unas fiestas que reunían a mucha gente. Es verdad que cada vez cuesta más que la gente participe, pero las fiestas son una manera de dar vida al barrio y al pueblo.

## Lazkaibarko jaiak

**Pedro Centol**  
Festa batzordeko kidea

**“Jaiak beherakada bat izan zuten, bertako bizilagunek festak berreskuratzea erabaki genuen arte”**

Andre Maria Mesedeetakoaren jaiak ospatuko dira



Pedro Centol

Irailaren 24an ospatzen dira 1945ean lehen aldiz ospatu ziren jai horiek. Jaien komisioko Pedro Centol da Lazkaibarko jai batzordeko kideetako bat.

Los mayores de Beasainmendi recuerdan que, cuando eran niños, subían a Murumendi portando barricas de vino con los bueyes, en compañía de acordeonistas, y que allí celebraban una fiesta. Las actuales fiestas de Agorta son sus sucesoras. En 1980, un grupo de jóvenes del barrio quiso recuperar esa fiesta y, desde entonces, el primer domingo de septiembre se celebra la fiesta en Agorta.



Enkarni Arrieta

rrijasotzaileak, aizkolaria, trikitaliak, bertsolariak...”. Gainera, urtero Beasainmendiko pertsona edadetueneri omenaldia egiten zaio. Aurten, azken urteetan bezala, Tiburcio Mujika izango da omendua, Arrieta baserrikoa. Tiburcio 1929an jaio zen eta 80 urte egin ditu urten. Gezurra dirudien arren, Tiburcio oso gutxiatik da auzoko zaharrena. Izan ere, 1929an jaiotako 6 pertsona daude Beasainmendiin!

“Azken urteetan krosa ere antolatzen dugu”, gogoratzen du Enkarni. Lasterketa auzoan hasi eta Agortaraino igotzean datza, guztira 5 kilometro. Momentuz, denbora onena Juan Mari Garin zizurkildarrak eskuratu du: 21 minutu eta 24 segundu.

Izan ere, Agortako festetara ez dira Beasainmendiko auzoak bakarrik gerturatzen. “Irrati bidez ematen dute festaren berri eta gero eta toki gehiagotako jendea gerturatzen da”, dio Enkarni.

### Inplikazio handia

30 baserri eta 90 biztanle biltzen dituen auzo hau buru-belarri sartzten da ospakizunean. Izan ere, 300 pertsonentzako janaria prestatu eta banatzea ez da lan makala! Adibide bat jartzearen, 21 kafe-pakete behar izaten dituzte guztiek bazkariaren ondorengo kafetoxa hartzeko. Horrez gain mahaiaik, karpak... Guzti-guztiak auzotarrek montatzen dituzte.

Gauean, ospakizunari amaiera emateko, Agortan bertan afaltzen dute, eta dena antolatzeko elkarten diren 60 lagunek merezitako deskantsua hartzen dute, hurrengo urtera arte.

“Inguruko erromeria bakarra da eta egun bakarreko programa dugu, bete-betea”, kontatzen digu Erauskin baserriko Enkarni Arrietak. Goizean, Usurbeko gurutzean meza izaten dute eta ondoren salda eta txorixoa jaten dituzte. Gero, Agortan, urtero 300 lagun inguru batzen dituen bazkaria izaten dute. “Arrai-zopa, entsalada, kostilla, txuleta eta piperrak prestatzen ditugu, eta postreerako, fruta”, azaltzen du Enkarni. 26 euro ordainduta nahi adina jan daiteke.

### Ekintza asko

Baina Agortako festak ez dira meza eta bazkari mugatzen. Ekintza asko antolatzen dituzte. “Umeen jolasak egoten dira, ha-

## Igartzako jaiak

**Xiker Lazkano eta Oihana Ortega**  
Igartza auzoko festa batzordeko kideak

**“Guk txikitako oso oroitzapen ona daukagunez, orain ere haurrak ondo pasatzea nahi dugu festetan”**

Iraileko bigarren astebukaeran ospatuko dira Igartzako jaiak

Hirugarren urtez jaien antolaketan murgilduta dabilta Oihana Ortega eta Xiker Lazkano. Aurten, iraileko bigarren asteburuan ospatuko dira Igartzako jaiak. Lehendabiziko aldiz, patata-tortilla txapelketa antolatu dute eta zintzurra bustitzeko, ardo dastaketa ere egingo da. “Sagardo dastaketak antolatu ohi dira eta egia esan, auzo honetan poteatzeko ohitura dago oraindik eta jendeak ardoa edaten duenez, guk ardoa eta haurrentzat muztioa jarriko ditugu”. Izertzi gehien, haurrek sortuarzaten die. “Ahalegin berezia egiten dugu umeekin zeren txikitako oso oroitzapen polita dugu eta nahi duguna da gaur egun ere haurrek ondo pasatzea. Joko sinpleak antolatzen ditugu, zailtasunik gabekoak eta narrats eginda bukatzen duzun horietakoak”. Auzo parte-hartzailea dela diote Igartzan. “Ia denok ezagutzen dugu elkar eta era batera edo bestera denek laguntzen dute”.



Xiker Lazkano eta Oihana Ortega



¿Desde cuándo se celebran las fiestas de Lazkaibar?

Se empezaron a celebrar en 1947 y tuvieron un parón hacia los años 60. Al cabo de los años, los vecinos decidimos retomar la fiesta con la idea de juntarnos todos en una celebración.



¿Qué actos se pueden encontrar en el programa de fiestas?

El día 24 de Septiembre, Día de la Merced, es la referencia de la celebración. Ese día organizamos una merienda-cena entre los vecinos en una sociedad. Luego, el domingo siguiente a ese día (este año será el 27) se celebra una misa en honor de los difuntos, acudimos a la residencia de ancianos y les hacemos un pequeño obsequio y celebramos una comida.

# Beasaindarrak munduan



**Amaia Dorronsoro**

**Non dago?** Brujasen bizi da, Belgikan.  
**Lana non?** Wallenius Wilhelmsen Logistics. Industria ingenieroa da.

*“Tanto en el trabajo como en la vida, tenemos que enfrentarnos a malos momentos y contratiempos, pero en mi caso, por ser mujer, no se me ha cerrado ninguna puerta, o eso es al menos lo que quiero pensar”.*

*“Al estar fuera de casa tienes que hacer frente a más retos, sobre todo, a retos relacionados con el idioma, la cultura o las costumbres”.*

**“Mundua geroz eta txikiagoa bihurtzen ari da”**

Zazpi urte daramatza atzerrian Amaia Dorronsorok. Suedian lehenengo eta Belgikan azken urtebete honetan. Brujas hirian bizi da. Momentuz gustura dagoen arren, lehenxeago edo beranduxeago etxera bueltatuko dela argi du. “Ez dut -dio- nire burua betirako kanpoan bizitzen ikusten”. Brujasen kanpotarra da eta hori saihestezina da. “la egunero galdetuko dizu norbaitek zein den zure jatorria edo herria eta noski, kanpotar sentiarazten zaitu, baina hori ez da txarra. Ezberdina izateak lotsa piska bat galtzen ere laguntzen du gainera”. Amaiaeren kasuan, kanpotarra eta emakumea da. “Bai lanean, bai bizitzan momentu ez hain onak eta trabak pairatu behar izaten ditugu baina emakumea izateak ez dit aterik itxi, hori pentsatu nahi dut behintzat”.

Denbora honetan guztian ikasi du “toki guztietan, baita gutxien esperotakoetan ere, badagoela zerbait ona eta interesgarria”. Kontua bilatzen jakitea dela eta batzuetan pazientzia apur bat izatea”. Bere ustez, euskaldunok guk uste baino antz handiagoa dugu kanpoko herrialdeetako jendearekin “eta geroz eta gehiagora doa. Mundua geroz eta txikiagoa bihurtzen ari da”. Hori bai, onartzen du etxetik urrun egoteak erronka askoren aurrean jartzen duela. “Zeure kabuz egin behar diezu aurre, batik bat, hizkuntza edo kultura eta ohiturekin zerikusia duten erronkei”.



**Xabier Collados**

**Non dago?** Brusela (Belgika).  
**Lana non?** EITBko korrespontsalia darama.

*“Bruselas es una ciudad muy burocratizada. Para inscribirme en el ayuntamiento tuve que venir cuatro veces porque no permiten coger cita previa”.*

*“Es muy difícil sentirse extranjero en Bruselas porque aquí mucha gente lo es”.*

**“Bruselan kazetarien artean bakarrik, 2.000 atzerritarrak gara!”**

“E”TBn lurretan aritu nintzen lanean eta kontratua amaitzean Berlinera alemaniera ikastera joatea pentsatu nuen. Gauzak horrela, nire burua handik freelance moduan lan egiteko eskaini nuen. 3 urtez egon nintzen Berlinen eta duela urtebete Bruselako korrespontsalia eskaini zidaten. Brusela oso hiri burokratizatua da. Arau piloa bete behar dira, baina hiritarrari eskaintzen zaiona ez dago maila berean. Adibidez, hona etorri eta udalean izena emateko ez dago aurrez txanda hartzeko aukerarik eta hara joan, ilaran jarri eta bertako langileek egun horretan atxandituko dituztenak pasatzen utzi eta besteok etxera bueltatu behar genuen. Nik izena emateko lau aldiz joan behar izan nuen hara! Atzerrian egoteak gauza asko irakasten dizkizu. Adibidez, herriatik eta familiatik urrun egotean lagun eta “familia” berria osatu behar dituzu. Azkenean, haiengana joko baituzu zerbait behar izanez gero. Bestela, zaila da Bruselan atzerritar sentitzea. Izan ere, hemen asko dira atzerritarrak. Kontuan izan kazetarien artean bakarrik, 2.000 atzerritarrak gara!”.



**Ion Urbina**

**Non dago?** Teheran (Iran).  
**Lana non?** Keraben enpresako bulego komertzialean.

*“Al principio todo te parece muy diferente, pero al cabo del tiempo te das cuenta de que no lo es tanto”.*

*“Los iraníes tienen por costumbre abrirte las puertas de su casa y hacerte sentir como en la tuya propia”.*

**“Arreta deitu dit Iranen euskaldunak eta beasaindarrak ikustea”**

“B”eka baten bidez joan nintzen Teheranera eta beka amaituta han geratzea eskaini zidaten. Hasieran hau oso ezberdina dela iruditzen zaizu, baina denborarekin moldatu egiten zara. Azkenean, gauzak horren ezberdinak ez direla konturatzen zara. Egia da ohitura aldetik desberdina dela herrialde islamiarra delako eta horrek legedian eragiten duela (ni nagoen bulegoko neskak, adibidez, oso tapatuta doaz). Bestela, iraniar jendea oso jatorria da. Ez zaituzte atzerritar sentiarazten eta beraien ohitura da kanpokoari beraien etxera gonbidatzea eta etxean egongo balitz bezala sentiaraztea. Hemen nagoenetik arreta deitu didana da euskaldunak eta beasaindarrak hemendik pasatzen ikustea. Euskaldunak munduan zehar asko mugitzen garen pertsonak gara iruditzen zait, bai turismoa egiten ari garelako, bai arrazoi profesionalengatik mugitzen garelako”.



**Alex Gibelalde**

**Non dago?** Dublinen hiru urte igaro ostean, orain Madrilen dago.  
**Lana non?** Google. Marketing arduraduna da.

*“En Google, tenemos flexibilidad horaria y podemos trabajar desde diferentes sitios. Además, en las oficinas tenemos comida, una sala de juegos, bicicletas, se organizan viajes de esquí... y todo ello, gratis. Los objetivos trimestrales son altos pero lo cierto es que en ese entorno trabajas a gusto. Estos americanos son listos y saben que si tienen a su gente contenta, los resultados serán también mejores”.*

**“Azkenean kanpoan lagunak familia bihurtzen dira eta betirako dira”**

P

rozesu luze baten ostean, Alex Gibelalde Google enpresan hasi zen lanean Dublinen. Hiru urte eman zituen han Madrilera etorri aurretik. “Irlandakoa -dio- kasualitate hutsa izan zen. Ni esperientzia berrien bila nenbilen eta berdin zitzaidan zein herrialdeetan lan egin. Azkenean, etxetik kanpo, independentea izaten ikasten da, familia eta lagunak babesetik kanpo bizitzea egiten, horrek dakartzan ondorio guztietan. Azkenean, kanpoan egindako lagunak familia bihurtzen dira eta lagun horiek betirako izaten dira”. Orain Madrilen dago eta ez daki noiz arte. Pozik dago enpresan. “Googleren filosofia oso berritzailea da. Hemen langileari eskaintzen zaiona ez dut beste inon ikusi. Lantokia irekia da eta lana egiteko modua ezberdina. Ingurune horrek edozein prozesu edo ideia aurrera eramateko aukera ematen du. Horregatik, mundu mailan enpresak 20.000 langile dituen arren, enpresa txiki baten antz handiagoa du. Malgutasuna dugu lanorduetan, nondik lan egin ere erabaki genezake, eta lantokian bertan dugu janaria, jolas-tokia, txirrituak, eski bidaiak antolatzen dizkigute... eta hori guztia doan. Helburuak altuak dira baina langile bezala gustura joaten zara lanera. Amerikar hauek azkarrak dira eta badakite langilea ondo tratatuz gero, emaitzak ere onak izango direla”.



**Mikel Plazaola**

**Non dago?** Shanghai.  
**Lana non?** Valvospain. 2007ko apiriletik Shanghai egiten du lan hango egoitzako gerente gisa.

*“China es toda una sorpresa. La monotonía no existe. Vas a las ocho a trabajar y no sabes lo que va a pasar a las diez. Es complicado hacerles entender. Hay muchos mitos. Eso de trabajar como chinos hay que cogelo entre comillas”.*

*“En Shanghai se vive bien; quitando los problemas de tráfico, es agradable. Hay gente de todo el mundo, es cosmopolita. En el resto de China, la cosa se complica por el idioma, la mentalidad... A veces, lo que a nosotros nos puede parecer una tontería, a ellos no hay forma de hacerles entender. Empezando desde el sentido del humor, todo es diferente”.*

**“Txinan gorputzak beste euskaldunekin elkartzea eskatzen dizu eta Euskal Etxean elkartzen gara”**

P

rofesionalki, Txinan lan egitea egongo dudana masterrik hoberena da” dio Mikel Plazaolak. Shanghai bizi da eta trafikoko arazoak kenduta, hiri atsegina dela bizitzeko dio. Kosmopolita. Shangaitik kanpo, ordea, hizkuntza eta pentsakera erabat ezberdinak dira eta elkar ulertzea ez da beti ahuntzaren gau erdiko ez tula. “Txinan monotoniarik ez dago. Zortzieta lanera joan eta ez dakizu hamarretan zer gerta daitekeen. Zaila da gauzak ulertaraztea eta mito asko dago. “Txinatarrak bezala lan egin” esan ohi da eta hori ez da beti horrela. Lantegietan egiten dute lan eta bertan bizi dira. Baina denetarik dago, batzuk asko lan egiten dute eta beste batzuk ez hainbeste. Uste dut txinatarrak beraien direla gogorrenak eta esplotatzaileenak euren jendearekin, batik batik, landa inguruetatik hiriratu eta enpresa pribatuak dituztenak”.

Hori bai, “Txinan gorputzak beste euskaldunekin elkartzea eskatzen dit eta asteburuetan hango Euskal Etxean elkartzen gara. Koadrila polita osatzen dugu eta bakoitza sektore batean jarduten den arren, azkenean guztiok izan ditzakegun arazoak amankomunak dira eta norbait moraliki baxu aurkitzen bada, besteon artean animatzen ahalgintzen gara”.

# Vida a ritmo de vals

... pero siempre dispuestos a mover el esqueleto. Y es que la gente de su edad -aseguran- es muy bailarina. Si alguien cree que no hay vida a partir de los 65, vida placentera se entiende, está muy equivocado. Y si no, que acuda al Hogar del Jubilado de Beasain, porque movida no falta. Claro, forman una gran familia de unas 2.000 personas.

La próxima gran cita será el día 20. Con motivo del Día de los Jubilados, han organizado, como cada año, una comida que tendrá lugar en el Polideportivo. Jugarán a cartas, con reparto de trofeos para los más hábiles, disfrutarán de la comida y "luego, a mover el esqueleto". Será la primera edición en la que Juan Epaizabal acude como presidente con su equipo, tras la dimisión en octubre de la comisión anterior. Desde entonces, se han implicado hasta las cejas y no han parado de trabajar. Lo primero ha sido actualizar el fichero de socios, aunque siguen sin informatizar los datos. "De todos modos, -dice Epaizabal- ya les he convencido a todos para que hagan un cursillo de informática". También han puesto en marcha la cocina para que pueda

usarla el que lo desee y se han hecho con un equipo de música y altavoces para todo el edificio. Ahora no tienen que estar contratando a músicos con el ahorro que eso supone. Tienen CDs de todo tipo. "Nos gusta la música de nuestra época. Ponemos tangos, vals, pasodobles...". ¿Y se liga en los bailes? "Pues, hay de todo. El baile nos viene bien, es una fiesta". Quienes anden más flojos con el baile, pueden probar suerte con la voz. En 1990 fundaron el coro "Gurea" que a lo largo del año ofrece varias actuaciones. "No tenemos tiempo para aburrirnos", añade Epaizabal. Y es que tienen la agenda llena. Concursos, excursiones, charlas... Y por supuesto, no dejan escapar una. Castañada en toda regla en noviembre, chistorrada en Santo Tomás y un almuerzo para quitarse la txapela cuando haga falta. "En junio, por ejemplo, ofrecemos un hamaiketako, pero este año cada uno se tendrá que pelar su huevo. Antes servíamos el huevo pelado pero como nos dijeron que teníamos que utilizar guantes y pinzas, dije, "ésta es la mía". Este año, todos a pelar el huevo".

Lo cierto es que entre huevo y huevo, las risas que se echan alargarán la vida a más de uno.



Behean: Jose Orbazabal, Juan Epaizabal, Jose Ignacio Urbieto eta Agustín Larrea. Gohian: Jose Luis Casero, Conchi Gómez, Maite Zurbano eta Milagros Aguirre.



Maite Zurbano

"Batzordean sartu arte, ez zara konturatzen zenbat lan egiten den hemen. Honi eutsi egin behar zaio zeren adineko jende asko dago konpainia faltan edo zer egin ez dakiela. Eta hemen kartetan jolasten dugu, bizioa da guretzat, edo dantzan egiten dugu, ibilaldietara joan..."



Conchi Gómez

"Jende askok aurreiritziak ditu eta ez da jubilatuta etxera etortzen uste duelako hau zaharrentzat dela. Eta pena da zeren ez da horrela".

## Iraila bete-bete dator

### Bazkaria

Irailaren 20an, urteroko ohiturari eutsiz, bazkaria egingo dute jubilatuen eguna ospatzeko aitzakian. 350 bat lagun biltzen dira. "Karta joan ibiltzen gara eta arratsaldean, gorputza mugitzera, dantzara".

### Larunbatetan dantzaldia

"Lehen musikariak ekartzen ziren hamabostero eta orain, berriz, dantzaldia antolatzen dugu larunbat batean Ordizian eta hurrengoan hemen. Txandak".

### Legatza euskal erara

Gipuzkoako jubilatuta etxetik hilabete honetan antolatzen duten gastronomía lehiaketan parte hartzeko asmoa dute aurten ere. Iaz bakailoa prestatu zuten eta aurten legatza euskal erara jarri beharko dute. "Prestatzen joateko esan digu Juanek. Zergatik uzten ote dituzte sukalde kontuak beti emakumeon eskul!", dio Conchi Gómezek.

### Ardandegira irteera

"Orain arteko -dio Juan Epaizabalek- irteera guztiak kostaldere egin ditugu eta oraingoan, Errioxako ardandegi batera eramango ditut. Inguru haiek, gainera, ondo ezagutzen ditut zeren soldaduska Logroñon egin nuen eta arratsaldez hara joango gara, emakumeei erakuslehoak ikustea gustatzen zaie-eta".



## Las obras de peatonalización entre Zubimuzu Plaza y Bideluze comenzarán este mismo mes

**E**gun batetik bestera hasiko dira Zubimuzu Plaza eta Bideluze arteko obrak. Hala, Udalak erdigunea oinezkoentzat jartzeko duen proiektuaren lehen fasea abiatuko da. Lanak hasten diren unetik itxita egongo da aipatu zatia.

Zerbitzu azpiegiturak berritzeaz gain, lurzorua erabat aldatuko da. Baldosak altuera berean jarriko dira, irisgarritasuna hobetze aldera. Esku-hartze horren baitan sartuko da Andra Mari kalearen lehen zatia ere. Sasoi batean, Kale Nagusitik Udaletxeko plazara igotzeko eskailerak zeuden eta eskailerak berreskuratuko dira. Kioskoko beirak ere aldatzea da asmoa.

Lanak zazpi bat hilabete iraungo dute, aurreikuspenen arabera, eta 1.300.000 euro kostako dira. Erabaki honen helburu nagusia da hirigunean espazioa eskaintzea oinezkoiei, herritarren topaleku bihurtzeko kaleak. Udalak erabakia hartu aurretik bizilagunen eta merkatarien iritzia ezagutu nahi izan zuen eta denek begionez ikusten dute neurria. Izan ere, Kale Nagusitik puntako orduetan 228 ibilgailu igarotzen dira eta 536 bat lagun oinez.

**1** La intervención se extenderá al primer tramo de Andra Mari kalea. El proyecto contempla la recuperación de la escalera que antiguamente existía para acceder a Loinazko San Martin Plaza desde Kale Nagusia. Asimismo, se cambiarán los vidrios del quiosco.



**2** Entre Zubimuzu Plaza y Bideluze, se renovará el suelo, de modo que todas las losas queden a la misma altura para surpimir las barreras arquitectónicas. También se reformarán las infraestructuras de gas, agua y electricidad. Asimismo, las obras abarcarán la renovación de Zubimuzu Plaza. Con ello, entrará en vigor la primera fase de peatonalización que contempla el Ayuntamiento.



Dicho tramo se cerrará al tráfico durante las obras, que tendrán una duración aproximada de siete meses y un presupuesto de 1.300.000 euros. A partir de esa fecha, se convertirá en zona peatonal.

## Oriamendi eta Nekolalde lotzen dituen igogailua martxan da



**U**ztail amaieratik martxan da Oriamendi eta Nekolalde lotzen dituen igogailua. Bizilagunek, dudarik gabe, antzeman dute azpiegitura berriak ekarri dien erosotasuna. Udalak bi igogailu eraikitzea erabaki zuen, teknikoki beste irteerarik ez zegoelako. Igogailuak edo eskailera mekanikoak jarri beharra zegoen, bertako kota ezberdinek ez dutelako ahalbidetzen arranpa bat ipintzea. Horren aurrean, Udalak igogailuaren aldeko apustua egin zuen ume-kotxeekin doazenez eta gurgildun-aulkia erabiltzai-

leek ere aukera izan dezaten Nekolaldera erraz igotzeko. Goizeko 7:00etatik 23:00etara erabilgarri izango da.

### Esperanza Santacreu

"Estaba deseando que pusieran en funcionamiento este ascensor. Vivo en Nekolalde 12 y hasta ahora tenía que subir dos cuestras para llegar a mi casa. Si iba con la compra, llegaba con la lengua fuera".



## Joan Iturralde parkea, haurrentzat gozamen iturri

**J**oan Iturralde parkeak haur andana elkartzen du eguneroko. Iazko otsailean hasi ziren lanak eta uda hasieratik pil-pilean dago. Haurrentzat, eta gurasoentzat, gune aproposa da bertako jolasei esker, ez baitago aspertzeko aukerarik.



## Dantza Igartza Jauregipean

El 12 de septiembre, dentro del programa de actos de las fiestas de Loinaz, alrededor de 50 dantzaris y 12 músicos partirán del Ayuntamiento al palacio de Igartza para representar allí los bailes recuperados y que forman parte del día de los Dantzaris de la Cofradía de Igartza. Allí, bajo la protección del palacio, bailarán una ezpatadantza y festejarán una romería de bailes de plaza.

Hirugarren urtez, Igartzako Dantzarien Kofradia osatzen dutenek, herriko udaletxetik hasi eta Igartzako Jauregiko bideari ekingo diote. Han, garai bateko dantza eta usadioak plazara-tuko dituzte. Jabego bat jabe batetik bestera pasatzerako ohiturak zirenak dira errepre-santzio horren jatorria. Igartzako Dantzarien Kofradiako Mikel Sarriegi, Javi Arroyo eta Aitor Furundarenaekin bildu gara, egun horretako xehetasunak ezagutzeko.



Javi Arroyo, Mikel Sarriegi eta Aitor Furundarena.

### Zergatik ekin zenieten dantza hau berreskuratzeari?

Mikel: Galduta zegoen dantza bat zen eta hori berreskuratzea interesgarria zela iruditu zitzaigun. Gainera, jende asko elkar dezakeen dantza da, beraz, parte-hartze handia izan dezake. Ikertzen hasi ginen eta 1830. urteko akta batzuetan oso informazio baliagarria aurkitu genuen. Bertan, hainbat dantzari deialdia egiten zitzairen egun jakin baterako eta, adibidez, eraman beharreko jantziak zehaztasun handiz deskribatzen ditu.


### Ekitaldi horretara beste dantza-talde batzuk ere gonbidatzen dituzue.

Javi: Bai, hala da. Aurten El Vendrelleko talde bat etorriko da gonbidatu gisa. Han gurearekin antzekotasun handiak dituen dantza bat egiten dute, Ball de Pastorets izenekoa. Guk egiten dugun dantza ikusi eta gurekin kontaktuan jarri ziren. Haien dantzak gurearen figura berdintsuak egiten ditu baina ezpaten ordez, makilak erabiltzen dituzte.

### Aurten, ekitaldiaren ondoren bazkaria eta erromeria egingo dituzue.

Aitor: Bai, hala da. Aiko taldearen eskutik egingo da (Aitor Aiko taldeko partaide ere bada) eta plaza dantzak joko eta dantzatuko ditugu. Orain duela 100 urte erromeriatan imajina ditzakegun plaza dantzak joko ditugu, sueltokoak, jauziak... Hortik hasi eta beste dantza batzuekin nahasturiko aldaerak ere joko ditugu, hala nola mazurka, tango, pasodoble edo txotis kutsua dutenak.

### Juan Antonio Irastorza



"Goierri taldean hasi nintzen dantzan eta gero Aurtzakan jarraitu nuen. Kuadrilla bat ginen eta oso ondo pasatzen genuen. Igartzan ospatzen dugun egun horrek garai bateko kontuak gogoratzeko balio digu. Gainera, geroz eta jende gehiago animatzen da".

### Arantxa Jauregi



"Gasteizen bizi naiz orain eta handik etorzen naiz entseguetara. Aurtengoa hirugarren urtea izango da. Garai bateko lagunekin elkartzeko aitzakia bat da eta egun aproposa da gure komerkiak kontatu eta elkarrekin barre egiteko. Entsegu egunak eta ekitaldiaren eguna bera oso politak dira. Orain, nik esaten diet: 50 urte ditudanean erretiratu egingo naiz!".

